



EFE

Osasunako Palacios eta Sevillako Casquero baloiarengatik lehian.

Beste puntu bat gehiago

2002an galdu gabe jarraitzen du Osasunak; azken hamar minutuetan hamarren kontra jokatzeko ez zuten asmatu Lotinaren mutilek, baina emaitza ez da bidegabea

Asier Legarda-ereño |

Racingen aun erabakitzeroaz, eta hori lehenbailehen eten behar izan zen aurretik.

Partida ondo hasi zen Osasunarentzat. Lehen hoge minutuetan gorritxoak erabat nagusitu zitzaizkion Sevillari. Sanchez Pizjuanen bildutako zaleek txistuak ere eskaini zitzaizkion euren taldeko jokalariei lehen ordu laurdena betetzerako. Baina Palaciosen eta Fernandoren saiakera onak egin arren, Lotinaren mutilek ez zuten golik sartzerik lortu, eta Sevillak partidaren sartzea lortu zuen berri.

Zorionez, Joaquin Caparrosen mutilek ez zuten ordea minik egiten erasoan. Andaluziarren lehen zatiko aukerarik onena Unzuerearen urrunketa txar baten ostean iritsi zen, baina Gallardok ez zuen asmatu atea aurrean. Eta gorritxoak hasieran

SEVILLA	0
OSASUNA	0

Sevilla: Olsen; Juanmi (Njegus 27. min.), Javi Navarro, Pablo Alfaro, David, Gallardo, Casquero, Francisco (Victor 50. min.), Tomas; Moises, Olivera (Torrado 83. min.).

Osasuna: Unzueta; Krutxaga, Contreras, Josetxo (Jusue 73 min.); Izquierdo, Puñal, Yanguas; Palacios, Fernando; Rosado (Iñaki Muñoz 71 min.), Aloisi (Sabino 57 min.).

Gol aukerak: Palaciosen burukada (9. min.), Fernandoren area kanpotik ezkerkada gogorra (13 min.).

Epailea: Tellez Sanchez. Txartel horiak: Osasunako Ivan Rosado, Puñal eta Palaciosi, eta Sevillako Navarriori bi, Alfaro, David eta Moisesi bana.

baino erraztasun gutxiago ematen bazizkien ere Sevillak kamuts jarraitzen zuen erasoan.

ZORTEA ALDE

Sevillako aurrelari Nico Oliverak bi baloi bidali zituen zutoinera, bat langara, eta beste aukera argi bat ere hutsegin zuen

Atsedendian ez zen aldaketarik izan gizonen zegoikionean, baina joko aldetik aldaketa nabarmena izan zuen Sevillak. Bigarren zatiko lehen hoge minutuetan Joaquin Caparros erabat nagusitu zitzaion Osasunari, eta zorte txarrak bakarrik galarazi zion markagailuan aurretik jartzea.

Oliveraren egun beltza

Reyes izar gazteak min hartu zuen partida atarian, eta bere ordean Nico Olivera urugairra sartu zuen Caparrosek Moise-

sen ondoan jokatzeko. Lehen zatian ez zuen ezer askorik egin, baina bigarren zatiko lehen minutuetan lau aukera argi huts egin zituen Oliverak. Bi baloi argi zutoinera bota zituen, beste bat langara, eta azken aukera bat ere izan zuen, baina Unzueta geldiketa bikaina egin zuen bere jaurtiketari erantzuteko.

Estutasunak golik jaso gabe igaro zituen ordea Osasunak. Lotinak zelai erdia sendotu zuen Rosado eta Aloisi kenduta, eta taldea lasaigo ari zen. Baina aldaketa horiek egitearekin damutu ere egingo zen entrenatzaile meñakarra, agian. 81. minutuan Sevilla gizon bat gutxiagorekin geratu zen. Ordurako, erasoko gorritxo onena ez zeuden ordea, zelaian, eta nafarrek ezin izan zuten garaipena lortzeko aukera baliatu. Azkenean, puntu bat.

EIBAR

Aldeondoren golak merezitako berdinketa eman dio Eibarri Oviedoren aurka

EIBAR	1
OVIEDO	1

Eibar: Iru, Garai, Fagoaga, Guerrero, Luis Prieto (David Ruiz, 58. min.), Cabrejo; Garitano, Solaun (Aldeondo, 59. min.), Barkero (Jon Kortina, 78. min.), Jorge Sanchez, eta Sukia.

Oviedo: Esteban; Angel, Oscar Alvarez, Onopko, Gurrutxaga; Boris, Jaime, Amieva (Santamaria, 85. min.), Ruben Reyes (Pablo Diaz, 71. min.); Geni eta Oli.

Golak: 0-1: Genik (10. min.). 1-1: Aitor Aldeondok (60. min.).

Epailea: Bello Rebol. Txartel horiak: Eibarreko Barkero, Garai eta Garitanori.

Erredakzioa | DONOSTIA

Eibarrek ezin izan zuten Pello Olano eta Artetxe taldekide oihei garaipena eskaini. Partidaren atarian omenaldia egin zitzaion Eibarren kamiseta urtetan jantzi zuten bi jokalariei, baina Blas Ziarretaren taldeak berdinketarekin konformatu behar izan zuen. Zelaian ikusitakoaren arabera, emaitza justua.

Eibarrek aurkari gogorra zuen, Espainiako Lehen Mailara igotzeko lehian baitago Oviedo, eta lehen zatian kanpoko taldea hobeto moldatu zen Ipuruako berdegune lokaztura. Blas Ziarretaren gizonen ez zuten aurkariaren defentsa zultzeko baliabiderik aurkitzen. Hori gutxi balitz, atzealdean egindako huts baten ondorioz, bakar-bakarrik errematatu zuen Genik area barruan, Oviedok aurrea hartu zuen markagailuan partida hasi eta berehala. Golak urduritasuna eragin zuen Eibarreko jokalariekin eta Oviedok partida erabakitzeko adina aukera izan zituen lehen zatian.

Bigarren zatian berdinketaren bila erasoari ekin zion Eibarrek. Jorge Sanchezek bere hanketan izan zuen gola, baina Barkero hasitako jokaldi batean, atxabaltarra izan zen partidako onena, heldu zen berdinketa. Bere erdiraketa Jorge Sanchezek jaso eta Aldeondori urrezko baloia utzi zion honek. Amaitu artean larri izan zen Eibar.